

Sakanako

hizkeren araberako
idazkera batua



AURKIBIDEA

Sarrera	5
Burutzapen fonetiko-fonologikoak	6
Burutzapen morfologikoak	7
Sintaxi mailako burutzapenak	10
Lexikoa	11-38

ARGITARATZAILEA:

Sakanako Mankomunitatea
Uriz 38 LAKUNTZA 31830
euskara@sakana-mank.com
tel.948 46 48 40 fax 948 46 48 53

EGILEA: Jose Luis Erdozia Mauleon

DISEINU ETA MAKETAZIOA: Bierrik elkartearen argitalpen zerbitzua

Sakanako hizkeren araberrako idazkera batua

Idazkera ofiziala, edo gutxienez maila batean jaso, baliatu behar dugunean gure eguneroko eginkizunetan, **euskara batuaren arauak izan behar ditugu kontuan, jakina, baina horrek ez du esan nahi gure hizkuntza esparruko ezaugarriak baztertu behar ditugunik**. Are gehiago, horiek nahitaez erabili beharrean gaudela iruditzen zait, Sakana bertako biztanle euskaldunen arteko komunikazioa errazteko eta baita etorri berriak ditugun gainekoak berezitasun horietara lehenbailehen ohi daitezen.

Hala ere, Sakanako hizkeren ezaugarriak aipatzerakoan ez naiz fonetismo eta tokian tokiko berezitasun edo zokokeriei buruz ari, baizik eta egun euskara batuan onartuak (beste zenbait ez onartuak baina oso hedatuak ditugunak ere bai) eta bertan erabiltzen ditugun zenbait ezaugarri morfologiko, sintaxi mailako eta lexikoen inguruan.

Bestalde, ez dira hainbeste kontuan izan beharreko bertako ezaugarriak eta, modu honetan, gure hizkuntza eremuan betidanik erabili izan diren egiturak, burutzapenak edota bilakabideak gogoratuko ditugu sakandarren arteko komunikazioa beroagoa eta hurbilgokoa bihurtuz.

Ondorengoak, beraz, Sakanan (Nafarroa barneko komunikazioetan ere bai) **erabiltzeko proposatzen ditudan burutzapenak:**

Burutzapen fonetiko-fonologikoak

- (*)¹ -on bukaera duten mailegu berriak horrela burutuko dira Sakana osoan (nahiz eta hizkera estandarrean -oi erabiltzen den, hizkera nafarreraren ezaugarria dugu): *kamiona, kainona, klariona, balkona, balona...*
- Errotazismoa adierazten duten zenbait burutzapen erabiliko ditugu Uhartetik ekialdera: *ortziral* (*ostiral* gainerakoetan), *ortots* (*ostots*), *ertsi* (*itxi*), *martutsa* (*masusta*), *erran*² Ihabarretik ekialdera (*esan*).
- (*) //n txandaketaren eraginez burutzapen ezberdinak baliatuko ditugu Burundan eta gainerako hizkeretan:
Burundan: *namu, nazka, nauri...* Bakaikun /-dunak dira burutzapenak.
Gainerakoan: *lamu, lazka, laumi...*

1. (*) ikur honekin islatu nahi da burutzapen hauek ez datozela bat Euskaltzaindiaren erabakiekin.
2. XX. mendearen bigarren erdialdean bizirik zegoen oraindik burutzapen hau Ihabarren Jose Maria Satrustegik behin baino gehiagotan esan zigun moduan. Irañetako Timoteo Berazak ere 2003 urtean gauza bera baieztatu zidan.

Burutzapen morfologikoak

- Deklinabideko destinatibo kasuan *-(r)endako* (mugagabeen), *-arendako* (mugatu singularrean), *-endako* (mugatu pluralean) eta *-ondako* (mugatu plural hurbilean) morfemak edo atzizkiak erabiliko dira Sakana osoan, euskara batuan ohikoagoak diren *-(r)entzat*, *-arentzat*, *-entzat* eta *-ontzat* beharrean.

Adib.: *Lagunondako ez da ezer gelditu.*

Izenordainen kasuan, berriz, *norendako / zeinendako...* (*norentzat / zeinentzat...* beharrean) galdetzaileak erabiliko dira eta pertsona izenordainei egokitutakoak, aldiz, hurrengo hauek: *niretako*, *hiretako*, *har(r)endako*, *gureta-ko*, *zuretako*, *zuendako*, *haiendako* (*niretzat*, *hiretzat*, *harentzat*, *guretzat*, *zuretzat*, *zuentzat*, *haientzat* beharrean).

- Deklinabideko prolatibo kasuan *-(e)tako* morfema edo atzizkia erabiliko da Sakana osoan, euskara batuan ohikoagoa den *-tzat* beharrean.

Adib.: *Semetako daukate.*

- (*) Deklinabideko instrumental kasuan *-(e)s* morfema edo atzizkia erabiliko da, nafarrera³ gehienez egiten den moduan:

Adb.: *Etxes etxe, barres leherturik...*

- Izen bizidunei egokitutako deklinabideko inesibo eta leku-genitibo kasuetan *-(r)en baitan/-ko* (mugagabeen), *-aren baitan/-ko* (mugatu singularrean), *-en baitan/-ko* (mugatu plurala) eta *-on baitan/-ko* (mugatu plural hurbila) morfemak edo atzizkiak erabiliko dira Sakana osoan, *-(r)engan*, *-arengan*, *-engan* eta *-ongan* beharrean.

Adib.: *Zure lagunaren baitan ez dugu ezer nabaritu.*

Amaren baitako errespetua handia da.

3. Ez da ahoskera kontua, Nafarroan ederki bereizten baitira bi kontsonante txistukariak (/z/ eta /s/).

SAKANAKO IDAZKERA BATUA

- Moduzko aditzondoak morfema eratorle ezberdinak erabiliz burutuko dira Burundan eta Sakanako gainerako herrietan:

+ *-do/-to* morfema edo atzizkia erabiliko da Burundan⁴.

Adib.: *txarto, ondo, hobeto...*

+ *-gi/-ki* morfema edo atzizkia erabiliko da Sakanako gainerako herrietan.

Adib.: *txarki, ongi, hobeki...*

- Landare edo zuhaitz ugaritasuna adierazteko bi atzizki erabiliko dira: *-di/-ti* Burundan, eta *-degi* Sakanako gainerako eremuan.

Burunda: *harizti, pagadi, sagardi, sasidi...*

Gainerakoa: *hariztegi, pagadegi, sagardegi, sasidegi...*

- Zenbatzaile zehaztuei dagokienez, ondorengo moduan hobetsiko dira ehunekoak Etxarritik ekialdera: *bietan ehun, hiruretan ehun, lauretan ehun, bostetan ehun, seieta ehun, zortzietan ehun, bed(e)ratzietan ehun*. Dena dela, dagoeneko ohikoagoak ditugun *berrehun, hirurehun, laurehun, bostehun, seiehun, zazpiehun, zortziehun, bederatziehun* burutzapenak ere erabili ahal izango dira.

Hamarrekoen kasuan, berriz, aurreko esparru berean ondorengo burutzapenak erabil daitezke: *hamar, hoge, hogeita hamar, berrogei / bietan hoge, berrogeita hamar / bietan hogeita hamar, hirurogei / hiruretan hoge, hirurogeita hamar / hiruretan hogeita hamar, laurogei / lauretan hoge, laurogeita hamar / lauretan hogeita hamar*.

- Nafarrerako hegoaldeko hizkeretan bezala, *partizipioa* + *-(r)ik* egitura hobetsiko da *partizipioa* + *-ta* beharrean: *jamrik dago, loturik dauka, eginik daukagu...*

- (*) Nor-nork erako aditz laguntzailearen burutzapenei erreparatuz, Euskaltzaindiak forma bakarra onartzen badu ere, eta Sakanan Euskal Herri osoan erabiltzen diren hiru formak baliatzen ditugunez, hirurak mantentzea

4. Bakaikun egoera nahasia dago: *ondo, hobeto...* baina *txarki*.

SAKANAKO IDAZKERA BATUA

proposatzen dut: **dot, dok/n** (Burundan eta Ergoienen); **det, dek/n** (Etxarrin); **dezu** (Burundan, Ergoienen eta Etxarrin); eta gainerako herrietan **dut, duk/n, duzu**.

- Aditzaren aspektuari dagokionez, geroaldiko forma burutzerakoan *-en* morfema hobetsiko da *-n* eta *-l* kontsonanteez bukatzen diren aditzekin: **esanen, egonen, eginen, fanen** (joanen), **emanen, hilen, jakinen, eramanen...**

- *Ahal izan* aditza erabilera berezi batean (gogo edo irrika bizia adierazteko gehienbat) baino ez da baliatuko eta ez ahalerako adizkien ordeztu:
Adb.: **Etortzen ahal haiz, bestela! Hilen ahal da behingoan!** Bestela: **fan naiteke** (ez fan ahal naiz), **egin dezaket** (ez egin ahal dut).

- *Etorri* aditza ez da era sintetiko edo trinkoan erabiliko, eta *heldu* aditz perifrastikoaren bidez burutuko da.
Adb.: **Heldu den ostiralean fanen gara** (Datorren ostiralean joango gara), **Guaixe heldu naiz** (Oraintxe nator).

Sintaxi mailako burutzapenak

- Ondorengo interjekzioak eta aditzondoak Sakana osoan erabiliko dira: *Aiaupenani!*, *Aieneni!*, *Inon direnaki!*, *Beharriki!*, *Sikira!*, *Barratu artio!*, *Aixel!* (Jakina!, Erraz!), *Gaizkixe!* (Ederki!, Primeran!).
- * Esaldi koordinatu hautakarietan juntagailu bakarra erabiltzen da Sakana osoan: *edo*.
Adb.: *Zenbat esan dun etorri direla, bi edo hiru mila?*
- Zenbait aditzekin (*eman*, *utzi*, *lagundu*, *jakin*) burutzen diren perifrasiak ondorengo moduan egingo dira: *-t(z)era eman*, *-t(z)en utzi/lagundu/jakin*.
Adb.: *jatera/edatera eman; egiten utzi/lagundu/jakin*.
- *Egin* aditza indargarri moduan erabiliko da.
Adb.: *Jendea poztu eginen litzateke*.
- Kausazko esaldietan ondorengo menderagailuak hobetsiko dira hizkera eremuen arabera:
-Burundan *eta*, *-lako* eta *zerengatik...-n*: *Etxera fan da ez dezu hots egin eta / Etxera fan da ez dezulako hots egin / Etxera fan da zerengatik ez dezun hots egin*.
-Gainerakoan *eta*, *-lakos*, *bait-* eta *zerengatik...-n*: *Etxera fan da ez dezulakos/duzulakos hots egin / Etxera fan da ez baitez/baituzu hots egin*.
(Beste bi menderagailuen erabilera Burundan bezalakoa da).

Lexikoa

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Abarkeria	Iz. <i>Makiñaat diru fan zikiyok abarkeyen!</i> (Makina bat diru joan zaiok abarkerian!) 'Derroche'.	<i>Abarkei</i>
Adaro	Iz. Lanabesa, 'media luna' tresna.	<i>Adaro</i>
Aditze(ra)z	Adond. Entzuteaz. <i>Aitzeras besteik eyau ezautzen!</i> (Aditzeraz besterik ez diagu ezagutzen!).	<i>Aitze(ra)s</i>
Aditzera	Iz. Ospea. <i>Aitzera txarrekué dek etorri berri dan gizonoil</i> (Aditzera txarrekoa duk etorri berri den gizon hori!).	<i>Aitzera</i>
Aditzera izan/eduki	Ad. per. Ezagutu, zerbaiten berri izan. <i>Kontuborren aitzera baneen, beye eneen uste tartin ziñenik!</i> (Kontu horren aditzera banuen, baina ez nuen uste tartean zinenik!).	<i>Aitzera izen / urai</i>
Ageritu	Ad. Hauteman, sumatu. <i>Emendi agittu degu limosnerua zerala</i> (Urteberri kanta) (Hemendik ageritu dugu limosneroa zarela).	<i>Agjittu</i>
Agerkera	Iz. Itxura. <i>Taberman zoden mutikuaik aarkera txarra zaka-bien.</i> (Taberman zeuden mutiko haiek agerkera txarra zeukaten).	<i>Aarkera</i>
Ahaztuzale	Izond. Ahanzkor; gauzak berehala ahazten dituen.	<i>Aztuzale</i>
Aho bihurka	Adond. Keinuak egin ahoa okertuz.	<i>Ago biyurke</i>
Aho handiarekin esan	Esam. Ziurtasun osoz esan.	<i>Ago aundiyaki esan</i>
Aho txikiarekin esan	Esam. Zalantza handiz esan.	<i>Ago txikiyaki esan</i>
Aho zabal	Izond. Aho handi. 'Bocazas'.	<i>Agozabal</i>
Aho zulora begira egon	Esam. Aho zabalik geratu norbaiten aurrean. Txotxolaturik gelditu norbaitekin.	<i>Ago txulua beire yon</i>

SAKANAKO IDAZKERA BATUA

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Ahotan ibili	Ad.per. Aurrekoa bezala. Aspaldiyontan, gauz betengati o bestiengati, agotan gaitzek! (Aspaldi honetan, gauza batengatik edo bestearengatik, ahotan gabiltzak!). 'Estar en candelero'.	Agotan ibilli
Ahotik hortzera (bota)	Adond. (esam) Bat-batean, pentsatu gabe, entzun bezain laster. Bestie entiatziako, kristonak bota zozkiyon agoti ortzia! (Bestea enteratzerako, kristorenak bota zizkion agotik hortzera!) '(Decir) de sopetón'.	Agoti ortzia
Aho-uhale(etan egon)	Iz. (ad per) Zurrumurru, zeresan. Ori dek agobela patueken! (Hori duk aho-uhala paratu duana!).	Agobel
Ahunzkera	Iz. Ahuntzaren araldia.	Aunzkia
Aida noranahil	Esam. Berdin da nora, baina goazen hemendik! Aida nuanei, atsalde guzie jei zikobau ta! (Aida noranahi, arratsalde guztia jai zaukaagu eta!).	Aida nuanei
Aida!	Interj. Abereei, behiei bereziki, aurrera egiteko esaten zaie.	Aida
Ainarri	Iz. Piztien garrasia bereziki, baina jendearekin ere. erabiltzen da zenbait kasutan. Zepue arrastakan ziamala, an fan dek añarriken basakatube. (Zepoa herrestan zeramala, han fan duk ainarrika basakatua).	Añarri
Aizkolto	Iz. Aizkora txikia.	Aizkolto
Aketz(-ztu)	Izond. Kamuts (-stu).	Aketz(tu)
Ala	Iz. Gaixotasun oso larria, minbizia.	Ala
Alaiera	Iz. Joera, modua, erabakia. Zueze ze alaiera artu deen! (Zoaz, zer alaiera hartu duen!).	Alaiera
Albizio(ra)	Posp. Gisa(ra), modu(ra), era(ra). Postposizioa da eta bere aurrean edute genitiboa eskatzen du. Autzi yok egun batzus bee albiziora! (Utz iezaioki egun batzueze bere albiziora!).	Albiziora
Ale bat ere ez	Izord. Inor ere ez, ezer ere ez. Aliat eez dek etorri! (Ale bat ere ez duk etorri!).	Aliat eez
Alerik ere ez	Inor ere ez, ezer ere ez. Aleik eez duk etorri! (Alerik ere ez duk etorri!).	Aleik eez

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Almaza	Iz. Zaldiak garbitzeko tresna, zepiloa.	<i>Almaza</i>
Almazari	Iz. Behorrek estaltzeko zaldia. 'Semental'.	<i>Almazai</i>
Almi(ra)nte	Iz. Agoazila.	<i>Alminte</i>
Alta	Iz. Txakur eta katuen araldia.	<i>Alta</i>
Altsai	Iz. Abereak orokorrean zaintzen dituen pertsona.	<i>Altsei</i>
Altxerri	Iz. Ardi-kaka eta lurrarekin mendian sortzen den ongaria.	<i>Altxerri</i>
Amazorro	Izond. Amazulo.	<i>Amazorro</i>
Ametsetako odolkia	Esam. Oso gogoko pertsona.	<i>Ametsetako odolkiye</i>
Amina	Iz. Amona.	<i>Amine</i>
Aminak kontatzen (egon)	Adond. Potro jorran (egon).	<i>Amilek kontatzen (yon)</i>
Amo(n)to	Iz. <i>Amanita caesarea</i> ziza. Ama + onto, seguru asko.	<i>Amo(in)to</i>
Anpuztu	Ad. Janariaz puztu. <i>Festoiten erabat anpuztuik akatu ñiet!</i> (Festa hauetan erabat anpuzturik akabatu dinat!).	<i>Anpuztu</i>
Antza eman	Ad. per. Antzeman, asmatu. <i>Guañik ez dook antzik eman?</i> (Oraindik ez diok antzik eman?).	<i>Antza eman</i>
Antzutu	Ad. Esnea moztu errapean.	<i>Antzutu</i>
Aparte gabe	Esam. 'Sin ir más lejos'.	<i>Aparte bee</i>
Apeptxori	Iz. 'Motacilla alba' txoria, 'aguzanieves'.	<i>Apeptxori</i>
Apote	Izond. Ordots, aketz.	<i>Apote</i>
Arbaldi	Iz. Eltze edo lapikoen estalkia. 'Tapa'.	<i>Arbaldi</i>
Argisenti	Iz. Egunsenti.	<i>Argisenti</i>
Arkazte	Iz. Ardi gaztea.	<i>Arkaxte</i>
Arkera	Iz. Ardiaren araldia.	<i>Arkia</i>
Arpan	Iz. Trontza mota.	<i>Arpan</i>
Arpilera	Iz. Lihozko maindirea.	<i>Arpillera</i>

SAKANAKO IDAZKERA BATUA

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Arra-arra	Adond. Erruz, ugari, multzoka. <i>Kotxiek arra-arra ziyue-ziek San Fermiñetaa!</i> (Kotxeak arra-arra zihoazek San Ferminetara!): 'A tropel'.	Arra-arra
Arraiaritz	Iz. <i>Quercus petraea</i> . Haritz mota.	Arreiaritz
Arrailatu	Ad. Egurra, esaterako, lehertu edo zartatu.	Arrelletu
Aramazka	Iz. Larruazaleko seinale edo marka. 'Arañazo'.	Arramaska
Arrastinatu	Ad. Zerbaiten bila ibili. 'Rastrear'.	Arrastiñetu
Arrija	Iz. Arreoa.	Arrije
Arsaldo	Iz. Ardi taldea.	Arsaldo
Artesi	Iz. Abereen belarriko marka.	Artesi
Artxo	Iz. Arkume eme jaioberria.	Artxo
Artzaiudare	Iz. Berez sorturiko udarondoa. <i>Pyrus pyroaste</i> .	Artzeiudere
Asko duk!	Esam. '¡Vaya por Dios!'. <i>Askuek! I de, guaixe etor beritzen!</i> (Asko duk! Hi ere, oraintxe etorri behar hintzen!).	Askuek/n
Asper-asper eginda (eduki) (egon)	Ad.per. Erabat gogaituta eduki edo egon. 'Tener o estar hasta la cornilla'.	Asper-asper ein-da (urai) (yon)
Astitu	Ad. Bentzagia dela eta, elikagaiaren bat jaso labean. 'Fermentar'.	Astittu
Ataka	Iz. Txerritegi eta txaboletako ate txiki eta estua.	Ataka
Atalaga	Iz. Atea ongi eusteko haga.	Atalaga
Atalgain	Iz. Atearen goiko zatia, ate osoaren laurdena. Berau zabaltzen da.	Atalgein
Atari	Iz. Atea.	Atai
Ateraldi	Iz. Burutazio. <i>A, ze atialdiye ein deen!</i> (A, zer ateraldia egin duen!).	Atialdi
Atorra	Iz. Alkandora.	Ator
Atorra hutsean	Esam. Atorra ez beste jantzirik gerritik gora, ez jertserik, ez berokirik.	Ator utsien

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Atzekoz aurrera	Esam. Aldrebes.	<i>Atzekos aurria</i>
Atzen, atzenean	Zenb., adond. Azken, azkenean.	<i>Atzen, atzenien</i>
Aupaz	Adond. Haurra besoetan.	<i>Aupas</i>
Aurrez bidali	Ad.per. Pikutara bidali.	<i>Aurres bieldu</i>
Auzate	Iz. Udalak ardoa doan ematen dueneko saioa. 'Auzo' eta 'edate' dira bere osagaiak.	<i>Auzate, aate</i>
Auzomotojorik	Adond. Erabat harroturik gertaera pozgarri baten aurrean.	<i>Auzomotojorik</i>
Azalarazi	Ad. Zirikatu, bultzatu. <i>Txakurre axalaazi ta, gio, gormiyek ikus zittuben!</i> (Txakurra azalarazi eta, gero, gorriak ikusi zituen!).	<i>Axalaazi</i>
Aze	Iz. Zura lantzeko bi giderreko tresna.	<i>Aze</i>
Azienda	Ad. Per. Abereak zaintzeko lanak egin.	<i>Azienda</i>
Azkarba	Iz. Azazkal gainaldeko larru haria. 'Pellejo'.	<i>Azkarba</i>
Aztalka	Adond. Aztalak eragin. 'Pataleo'.	<i>Aztalka</i>
Azteneko aztalkak egin	Ad. Per. Hil aurreko azkenekoak egin. 'Estirar la pata'.	<i>Azteneko aztalkak ein</i>
Aztalzain	Iz. 'Tendón de Aquiles'.	<i>Aztalzein</i>
Aztarrika(tu)	Ad. Muturrarekin muturra irauli. 'Acción de escarbar'.	<i>Aztarriketu</i>
(H)aztatu	Ad. Asmatu. <i>Oso zelle dek kiniela aztatzie!</i> (Oso zaila duk kiniela aztatzea!).	<i>Aztatu</i>
Azundu	Ad. Haur edo umedun gelditu.	<i>Azundu</i>
Baballeka	Iz. <i>Arctostaphilos uva-ursi</i> landarea.	<i>Baballeka</i>
Babapolain	Iz. Baba ondu gabea, leka eta guzti.	<i>Babapolein</i>
Babatxiki	Iz. Baba ondua, pikortua.	<i>Babatxiki</i>
Babatze	Iz. Baba soroa. <i>Nabotze</i> ere erabiltzen da.	<i>Babatze</i>
Babazapo	Iz. Baban sortutako zomorroa. 'Gorgojo'.	<i>Babazapo</i>

SAKANAKO IDAZKERA BATUA

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Baldartu arte	Grad. Gehiegi, asko. <i>Baldarratu artio jan yau!</i> (Baldartu arte jan diagu!).	<i>Baldarratu artio</i>
Baldinbaz	Part. Zerbait gertatzea nahi dugunean. '¡Malo sea!'.	<i>Bal(d)inbes</i>
Baldo	Iz. Egur zatia, enborra lehertzerakoan ateratzen diren zatiak. 'Trozo, gajo'.	<i>Baldo</i>
Balete	Iz. Balaz osaturiko pila edo meta.	<i>Balete</i>
Bano	Izond. Ahul, beratz. 'Flojo'.	<i>Bano</i>
Barr(ei)atu arte	Adond. Asko, erruz. <i>Auskias barratu artio aitzen dek Etxarrin!</i> (Euskaraz barreiatu arte aditzen duk Etxarrin!).	<i>Barratu artio</i>
Barra-barra	1. (egin) ad. Txikitu. 2. (egina egon) ad. Burutik jota. 3. adond. Asko, erruz. 4. adond. Nekatuta.	<i>Barra-barra</i>
Bartan	Iz. Azpantarra. 'Polaina'.	<i>Bartan</i>
Bartuhal	Iz. Larruzko sokaz egindako uztarriko zatia, non gurdia- ren endaitza lotzen den.	<i>Bartubel</i>
Basaka	Iz. Basurdekumea.	<i>Baxaka</i>
Basalo	1. Iz. Artoz egindako ogia. 2. izond. Inozo, tentel.	<i>Basalo</i>
Basare	Iz. Txerriaren sabeleko sarea. Txerrikiak <i>basarean</i> bilduta eramaten ziren etxera, txerria hildakoan. '¿Peritoneo?'.	<i>Basare</i>
Basigurai	Iz. Basozain.	<i>Basigurei</i>
Basuso	Iz. Basoko usoa. 'Paloma torcaz'.	<i>Basuso</i>
Baztarreko	Iz. Beheko suan aldeetan jartzen den egur handia. Honek irauarazten du inkerra bertan.	<i>Baztarreko</i>
Be(g)i(ra)tu	Ad. Isuna jarri.	<i>Beiretu</i>
Be(re)gaindu	Ad. Hoberenak hautatu. 'Seleccionar'.	<i>Begeinddu</i>
Beaka	Iz. Aldaka.	<i>Bieka</i>
-(r)en begietatik ikusi	Ad. per. Norbaiten morroi izan edozertarako, norbaitek esaten duena egin.	-(r)en begiteti ikusi

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Beginabar	Izond. Kolore argiko (urdinak bereziki) begiak dituen.	<i>Beginabar</i>
Begizuri	Izond. Konfiantza gutxiko pertsona, lanari atxikitzen ez zaiona. 'Maltrabaja'.	<i>Begizui</i>
Beharreztenkeria	Iz. Zentzugabekeria. 'Disparate, acción innecesaria'.	<i>Bierreztankei</i>
Behin berare	Part. Behin gutxienez.	<i>Bein biare</i>
Bekainbeltz	Izond. Pertsona serioegia, inoiz barrerik egiten ez duena.	<i>Bekeinbeltz</i>
Belaunkozkor	Iz. Belauneko muturra. 'Rótula'.	<i>Belaunkozkor</i>
Bentzagi	Iz. Legamia, orantza.	<i>Bentzai</i>
Beratz	Izond. Biguna.	<i>Biatz</i>
Berazun	Iz. Lurra hezetasun gehiegirekin izatea soroko lanak oztoparaziz.	<i>Biazun</i>
Berriketontzi	Izond. Hitzontzi.	<i>Berriketauntzi</i>
Besaleri	Iz. Idiak uztarrian elkarri bultzaka aritzen direnekoa.	<i>Besalei</i>
Bestengusu	Iz. Lehengusu propioa ez dena.	<i>Bestengusu</i>
Betor	Iz. Begi pikorra.	<i>Bettor</i>
Bi(d)aldu	Ad. Bidali.	<i>Bieltu</i>
Biboro	Izond. Bikia.	<i>Biboro</i>
Bideberri	Iz. Errepidea.	<i>Bideberri</i>
Bidur	Iz. Gurdiko alde ezberdinetako txarrantzak lotzen dituen katea. Aspaldian egurrezkoak ziren, bidurrezkoak.	<i>Bidur</i>
Bigarren	Part. Bezala, balitz bezala.	<i>Bigerren</i>
Bil-bila	Adond. Bildu-bildua. 'Hecho un ovillo'.	<i>Bil-bille</i>
Biro	Iz. Hegaztien hestegorriaren zabalgunea.	<i>Biro</i>
Biziasmo	Iz. Bizitzeko gogo edo asmoa. 'Ilusión, ganas de vivir'.	<i>Biziasmo</i>
Bonbor	1. iz. Zuhaitzei ateratzen zaien hazidura. 2. izond. Pertsona egoskorra, burugogorra.	<i>Bonbor</i>

SAKANAKO IDAZKERA BATUA

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Borbosta	1. iz. Ibaietako presa azpitan urak sortzen duen aparra. 2. Jenio bizian erantzuten duen pertsona.	<i>Borbosta</i>
Borra-borra	Adond. Mozkorturik.	<i>Borra-borra</i>
Borrozain	Iz. Zuhaitz edo landareen kimu berria.	<i>Borrozein</i>
Bostortz	Iz. Nekazaritzako tresna, iraulitako lurra txikitzeko erabiltzen dena.	<i>Bostortz</i>
Brikolin	Iz. Pistiloa.	<i>Brikolin</i>
Bulkatu	Ad. Bultzatu.	<i>Bulketu</i>
Burdin-kaka	Iz. Burdin zaborra. 'Escoria'.	<i>Burnikaka</i>
Burdin-ziri	Iz. Burdinazko ziria.	<i>Burniziri</i>
Burkain	Iz. Buru gaineko trapua ontziak eramateko.	<i>Burkiño</i>
Burrun-burrun	1. Iz. Erleen soinua. 'Zumbido' 2. adond. Jende guztiaren ahotan (ibili).	<i>Burrun-burrun</i>
Burtzin	1. iz. Sua astintzeko burdinazko tresna luzea. 2. izond. Pertsona sutua, beroa.	<i>Burtxin</i>
Burutik behera egin	Esam. Trufatu, barre egin.	<i>Buuti bia ein</i>
Buruz beherako	Iz. Uretan murgilaldia.	<i>Busbiako</i>
Buruzagi	Iz. Herriko ardoa banatzen duena erromerietan.	<i>Buuzei</i>
Buztelo	Izond. Buztan motza. 'Rabicorto'.	<i>Buztelo</i>
Dardako	1. iz. Zirrara. 'Impresión' 2. iz. Argindarrak gorputzean sentiarazten duen zirrara. 'Calambrazo'.	<i>Dardako</i>
Demontrearen	Grad. Izugarrizko. <i>Demontrien saltue ein zeen!</i> (Demontrearen saltoa egin zuen!).	<i>Demontrien</i>
Denaz ere	Part. Hala eta guztiz ere.	<i>Danas ee</i>
Denboraren pasioz	Esam. Denboraren poderioz.	<i>Denboran pasiyos</i>
Denboraz	Adond. Berehala. <i>Denbuas agertuko ttuk!</i> (Denboraz agertuko dituk!).	<i>Denbuas</i>

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Dezakeen	Izond. Aberats, dirudun. 'Pudiente, acaudalado'.	<i>Dezaken</i>
Di-da	Adond. Oso azkar:	<i>Di-da</i>
Dinbili-danbala	Adond. Orekari ezin utsiz. 'Dando tumbos'.	<i>Dinbili-danbala</i>
Dirualdi	Iz. Dirutza.	<i>Dirualdi</i>
Dulebre	Iz. Sasoi, ganora.	<i>Dulebre</i>
Durrin	Iz. Burrunbada. 'Zumbido'.	<i>Durrin</i>
Egoki ailegatu	Ad. per. Momentu edo modu onean gertatu. 'Venir de perlas'.	<i>Egoki allatu</i>
Eilor	Iz. Ardiendako txabola mendian.	<i>Ellor</i>
Ekaizpuru	Iz. Ekaitzaren bukaera, azken zantzuak.	<i>Ekeizbuu</i>
Ekilikua	Esam. Horixe bera! '¡Exactamente!'	<i>Ekilikua</i>
Elarazi	Ad. Zaletarazi, zerbaiti do norbaiti begira jarri.	<i>Elaazi</i>
Elatu	Ad. Zaletu, animatu, ilusioak egin.	<i>Elatu</i>
Elkar aditu	Ad. per. Bat etorri, kide <u>tu</u> . <i>Alkar aittuik ziekl</i> (Elkar aditurik zaudek!).	<i>Alkar aittu</i>
Elo	Iz. Gogoko den zerbait dastatu edo probatu, gutxienez. Gutizia.	<i>Elo</i>
Eltzeburdin	Iz. Burdinazko tresna, eltzea bere gainean jartzeko beheko suan.	<i>Eltzaburni</i>
Eltzeko	Iz. Lapikokoa. 'Potaje'.	<i>Eltzeko</i>
Elurbusti	Iz. Erdi elurra, erdi euria. 'Aguanieve'.	<i>Elurbusti</i>
Elurzulo	Iz. Dolina. 'Nevero'.	<i>Elurzulo</i>
Enanzatu	Ad. Lanean, bereziki, aurrera egin probetxu handiarekin.	<i>Enanzatu</i>
Enanzo	Adond. Egokiro.	<i>Enanzo</i>
Enarasagu, gauenara	Iz. Saguzarra.	<i>Iñerexagu, gauinara</i>
Endai	Iz. Ogia labetik ateratzeko para.	<i>Endei</i>

SAKANAKO IDAZKERA BATUA

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Entenga	Iz. Iltze oso handia, aizkolariendako enborrak prestatzeko erabiltzen dira, esate baterako.	<i>Entenga</i>
Entrama	Iz. Pertsona edo tresna batek gai bat 'jateko' edo ahitze-ko gaitasuna. 'Apetito, capacidad de corte'.	<i>Entrama</i>
Entresaka	Iz. Zuhaitz edo landareen bakanketa.	<i>Entresaka</i>
Entsalera	Iz. Leka, babarrun berdea.	<i>Entsalera</i>
Epaitz	Iz. Zuhaitza botatzerakoan lurrean geratzen den enbor zatia. 'Tocón'.	<i>Epaitz</i>
Epats	Iz. Korrokada.	<i>Epats</i>
Eragotzi	Ad. 1. Debekatu. 2. Aratxea tititik kendu behin-betiko. 'Destetar'.	<i>Eragotzi, erootzi</i>
Eran-eran	Adond. Nahi bezala, ezin hobeki. 'A placer'.	<i>Eran-eran</i>
Eriko	Iz. Behatzetako zauria babesteko oihalezko edo larruzko zorroa. 'Apósito'.	<i>Eriko</i>
Erlamin	Iz. Liztorra.	<i>Erlamin</i>
Erlastu	Ad. Soroko gaineko lurra lehortu, irauli edo euria egin eta gero, momentu egokiena delarik ereiteko.	<i>Erlastu</i>
Emal-ziri	Iz. Hainbat tresnen giderra estutzeko ziria.	<i>Emalziri</i>
Eroputz	Izond. Inozoa. 'Estúpido'.	<i>Eroputz</i>
Erpa	Iz. Soinekoen beheko aldeak. 'Bajos de la ropa'.	<i>Erpa</i>
Errai	Iz. Gerriko atzealdea. 'Zona lumbar, los riñones'.	<i>Errei</i>
Erraietako mina	'Lumbago'.	<i>Erreiteko miñe</i>
Erramal	Iz. Soka lodia. 'Ramal'.	<i>Erremala</i>
Errasekitu	Ad. Erregu bolumen neurria, esaterako, neurrian jarri. 'Rasear una medida'.	<i>Erresekittu</i>
Errekaitu	Izond. Erreminta, pertsona bihurria.	<i>Errekeittu</i>
Errekeru	Iz. Janariak lapikoan itsasterakoan hartzen duen zaporea. 'Gusto o sabor a quemado'.	<i>Errekeru</i>

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Erren	Iz. Arantza, eztena. 'Espina, pincho, aguijón'.	Erren
Erro	Iz. I. Sustraia. 2. Titi, bular, gehienbat abereena. 'Ubre'.	Erro
Ertitz	Iz. Behatzetako zauri gaiztotua.	Ertitz
Ertoki	Iz. Erruteko tokia.	Ertoki
Eru	Iz. Laborea. 'Yero, girón'.	Eru
Esanbehar	Iz. Esanbeharra. 'Queja, alegación'.	Esanbier
Eseki	1. iz. Gari balak lotzeko zikirioz egindako soka modukoa. 2. ad. Zintzilikatu.	Eseki
Eskaira	Iz. Aukera. 'Ocasión'.	Eskei
Eskartzela	Iz. Bizkarretik zintzilik eramateko zorroa. 'Morral, bolsa en bandolera'.	Eskartxera
Eskerrago likek	Esam. Zer bait gertatu edo egia izan dadin nahi dugunetan erabiltzen da. Eskerroo likek auriye eiñen balau! (Eskerrago likek euria eginen balu!). '¡Ojalá...! ¡Ya podía...!'	Eskerroo likek
Eskutarazi	Ad. Erakarri.	Eskutaazi
Eskute	Iz. Eskukada. 'Manojo'.	Eskute
Esneziza	Iz. <i>Lactarius</i> motako ziza.	Esnezize
Esporta.	Iz. Saskia, zarea.	Esporta
Estrabi	Iz. Ikuilua.	Estarbi
Etro	Izond. Gehiegikeriak egiten dituen pertsona.	Etro
Etzin	Ad. Etzan.	Etzin
Ez ahuntzetarako, ez ardietarako	Esam. Ez baterako, ez besterako. 'Indeciso'.	Ez auntzetako, ez arditako
Ezkila	Iz. Kanpaia.	Ezkil
Eztarrizulo	Iz. 'Tráquea'.	Eztarrizulo
Faltsongamri	Izond. Oso alferra. 'Vago redomado'.	Falsongarri
Fan	Ad. Joan.	Fan

SAKANAKO IDAZKERA BATUA

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Fitsatu	Ad. Fitsetan zatitu edo txikitu. 'Deshilachar, hacer trizas'.	<i>Fitsetu</i>
Gailur-afari, gailur-festa	Iz. Eraikuntza berri bateko teilatua egindakoan egiten den afaria.	<i>Kaldor-afai, kaldor-festa</i>
Gainartu	Ad. Menderatu.	<i>Geñartu</i>
Gaizkixe	Adond. Ederki. Geixkixe zaudie itzelien! (Gaizkixe zaudete itzalean!).	<i>Geixkixe</i>
Galar	Iz. Zuhaitzen adar ihartuak.	<i>Galar</i>
Galartxori	Iz. 'Gorrión'.	<i>Galartxori</i>
Galbizar	Iz. Gariaren bizarra.	<i>Galbizer</i>
Galdemodu	Iz. Galdera.	<i>Galdemodu</i>
Galdu-gorde	Iz. Ganora.	<i>Galduborde</i>
Galmotz	Iz. Bizarrrik gabeko garia.	<i>Galmotz</i>
Galuze	Iz. Gari arrunta, bizarrak eta guzti.	<i>Galuze</i>
Galtiar	Izond. Etxekalte, taberna zuloan sartuta bizi dena.	<i>Galtierro</i>
Galtzandi	Izond. 'Calzonazos'	<i>Galtzaundi</i>
Galtzasoka	Iz. Galtzerdiak eusteko soka. 'Liga'	<i>Galtzasoki</i>
Galtzin	Iz. Karea.	<i>Galtzin</i>
Galtzinlabe	Iz. Karea egiteko labea, basoan.	<i>Galtzinlabe</i>
Galtzorratz	Iz. Orratz luzea, puntu egitekoa.	<i>Galtxorrotz</i>
Ganbaragoiko	Iz. Ganbara, teilatua azpiko solairua.	<i>Ganboiko</i>
Ganbarazelai	Iz. Etxeko lehen solairua, gelak dituen.	<i>Ganbazelei</i>
Garagarzaro	Iz. Ekain.	<i>Garagarzaro</i>
Garbierotu	Ad. Erotu, burua nahastu, galderak eginez, esterako.	<i>Garbieratu</i>
Garil	Iz. Uztail.	<i>Garil</i>
Gauetze	Iz. Iluntzeko ordua.	<i>Gaubetze</i>

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Gazmorra	Izond. Oso gazia. 'Salmuera'.	Gazmorra
Gaztanbera	Iz. Mamia.	Gaztanbera
Gaztazahar, gaztamin	Iz. 'Queso viejo'.	Gaztazar, gaztamin
Gaztigatu	Ad. Abisatu. <i>Gaztiyok lenebeilen, aztu bee!</i> (Gaztiga iezaioak lehenbailehen, ahaztu gabe!).	Gaztietu
Gehiegi iritzi	Ad. per. Gehiegi iritzi. <i>Geyeztik gauden semieki, denbua guzie zion gui beire!</i> (Gehiegi iritzirik gauden semearekin, denbora guztia zagon guri begira!). 'Abrumar'.	Geyezti
Gemu-jario	Iz. Txiza jarioa.	Gernujariyo
Gemumin	Iz. Prostatako gaixotasuna.	Gernumin
Germjario	Izond. Baldar, arropak nolnanihi eramaten dituen.	Gerrijario
Gerriratu	Ad. Lurra mugitu maldan behera.	Gerrietu
Gezurra zutik bota, Gezurra egjaren kolorean bota	Esam. Lotsarik gabe gezurra esan. <i>Ez fiyetu orreki, gezur-re zuti botatzen debien oitekue dek ta!</i> (Ez fidatu horrekin, gezurra zutik botatzen duten horietako duk eta!). 'Mentir descaradamente'.	Gezurre zuti bota, Gezurre egjyan kolorien bota
Gezurriturri, gezurzulo	Izond. Gezurti.	Gezurritturri, gezurzulo
Gibelgorri	Iz. <i>Russula</i> motako ziza gorria.	Gibelgorri
Gingirrin	Iz. Haragia erretzeko tresna. 'Parrilla'.	Gingirrin
Gingirrinetan egon/jarri	Ad. per. Oso haserre egon/jarri. <i>Ezin nok orren onduen bos minuto yon, gingiriñetan jartzen ziek ta!</i> (Ezin nauk horren ondoan bost minutu egon, gingirrinetan jartzen zidak eta!).	Gingirriñetan yon / jarri
Gisugile	Iz. Igeltseroa. <i>Garai betien Sakanan kiskusgillek ittuben langile geyenak.</i> (Garai batean Sakanan gisugileak hituen langile gehienak).	Kiskusgil
Goi-maindre	Iz. Jaioberriei oihalen gainean janzten zaien soinekoa. 'Camisón, faldón'.	Gonddere
Gorriak ikusi	Ad. per. Oso gaizki pasatu.	Gorriyek ikusi

SAKANAKO IDAZKERA BATUA

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Gozakaiztu	Ad. Nekazaritzan batez ere, laboreak nahi bezala ez gertatu. 'Revenir; destemplar'.	Gozakeiztu
Gurasokide	Iz. Familiakoa. 'Compadre, pariente'.	Guexkide
Gurtol	Iz. Gurdiaren aldeko oholak.	Gurtol
Hagetara bota	Ad. per. Gaixotu, erabat ahuldu. Agetaa botaik zioik gizonoi! (Hagetara botarik zagok gizon hori!).	Agetaa bota
Hankak arin!	Esam. Alde hemendik!	Ankak arin
Harmokilo	Iz. Harri pilaketa.	Armokillo
Harrako	Iz. Igeri egiterakoan besokada bakoitza. 'Brazada'.	Arrako
Harreuli	Iz. Euli handia. 'Moscardón'.	Arrauli
Hartzeko	Iz. Neurritz kanpoko asmo edo gogo. Beye ik, mutikua, ze artzekuek dazkak! (Baina hik, mutikoa, zer hartzekoa dauzkak!)	Artzeko
Hats egin	Ad. Errenditu, lasaitu.	Ats ein
Hatseria	Iz. Arnasa hartzeko zailtasuna.	Atsei
Haustapur	Adond. Buru-belarri.	Austepur, autxapur
Hazberritu	Ad. Nahasi, asaldatu. Guartu bee eri guzie azperittu yau! (Ohartu gabe herri guztia hazberritu diagu!). 'Agitar; revolver'.	Azperittu
Hazgalemihi	Iz. Auhena, kexa. 'Lamento'.	Axkalami
Hazikoi	Iz. Zuhaitz mintegia. 'Semillero'.	Axkoi
Hegamakur	Iz. Hegabera, hegazia.	Egamakur
Hegolege	Iz. Hego-haizea nagusi izan.	Egolege
Herribateko	Iz. Itxura edo izaera bereko pertsona. 'Compadre, compinche'.	Erribeteko
Hesol	Iz. Oholez egindako pareta.	Esol
Hilbeltz	Iz. Urtarri.	Ilbeltz
Hiruorribelar	Iz. Hiru hostoetako belarra.	Iruorribelar

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Hitzporka	1. lz. Hitz andana. 'Palabrería, retahila'. 2. izond. Hitzontzi.	<i>Izporka</i>
Hobe duk hutsa!	Esam. Eyeizela lanía agertuko? Obiek utse! (Ez haizela lanera agertuko? Hobe duk hutsa!); '¡Más te vale...!'	<i>Obiek utse!</i> <i>Obe dok utsa!</i>
Hoberenean	Adond. Agjan, beharbada.	<i>Obenien</i>
Hobesari	lz. Zerbait trukatzean, egon daitekeen diferentzia, konpondu beharrekoa. 'Saldo'.	<i>Obesai</i>
Hotsuts	Izond. Zarata eta iskanbila baino sortzen ez duen pertsona. Ez ayela arittu orreki, otsutse dek eta! (Ez hadi harritu horrekin hotsutsa duk eta!); 'Buloso'.	<i>Otsuts</i>
Hotzak garbitzen egon	Ad.per. Erabat hoztuta egon. Otzak garbitzen niok, dal-dal-dal! (Hotzak garbitzen nagok, dal-dal-dal!).	<i>Otzak garbitzen yon</i>
Hotzil	lz. Uretan erabat sartu baino lehenagoko bustialdia. Ez okurritu utseta sartzie otzille ein beel! (Ez okurritu uretara sartzea hotzila egin gabel!).	<i>Otzil</i>
Hozkarritu	Ad. Hotzez kikhildu. Atzo gaubien ozkarrituik allaatu nittuban etxial! (Atzo gauean ozkarriturik ailegatu nituan etxera!).	<i>Ozkarratu, ozkarritu</i>
Hozkilo	Izond. Hozbera, hozkil.	<i>Ozkillo, otzakila</i>
I(n)gurai	lz. Baso eta soroak zaintzen dituen. 'Guarda de montes y campos'.	<i>Igurei</i>
Ibili eta buelta	Esam. Dena den.	<i>Ibilli ta buelta</i>
Ibin, ibintze	lz. 'Rastrojo, rastrojera'.	<i>Ibin, ibintze</i>
Idarrosi	Ad. Astindu, garbiketa handia egin.	<i>Iderrosi</i>
Idoitu	Ad. Iraultatu zingiran.	<i>Idoittu</i>
Ihal	lz. Behorren arraldia.	<i>Iyel</i>
Ijili-ajala	Adond. Umore onean. Aste guzie ijili-ajala zaitzie ta gio izanen ttuzubie kontubek! (Aste guztia ijili-ajala zabilzate eta gero izanen dituzue kontuak!).	<i>Ijili-ajala</i>
Ikertza(tu)	lz. (ad.) Kaltea, mina, hanka-sartze handia. Egindako kalteak aztertu. A ze ikertza ein debien basurdiek guu soruen! (A, zer ikertza egin duten basurdeek gure soroan!).	<i>Ikertza(tu)</i>

SAKANAKO IDAZKERA BATUA

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Ikurka-makurka	Adond. Zeharka-meharka. <i>Meyetzia itzotzeko ikurke-makurke ibilli ber dek zenbeit tokiten!</i> (Maiatzera igotzeko ikurka-makurka ibili behar duk zenbait tokitan!). 'En zig-zag'.	<i>Ikurke-makurke</i>
Ikutu	Ad. Ukitu.	<i>Ikutu</i>
Inbuluzka	Iz. Itzulipurdia.	<i>Inbuluzke</i>
Induria	Iz. Abilezia, trebetasuna. 'Destreza, arte para hacer las cosas'.	<i>Indui</i>
Inpusitu	Ad. Erabat bete, saturatu, puztu. <i>Jendes inpusituik zegoan lengo egunien San Pedroko zeleya!</i> (Jendez inpusiturik zegoan lehengo egunean San Pedroko zelaia!).	<i>Inpusittu</i>
Ipurserbitzari	Iz. Morroitarako baino balio ez duen pertsona. <i>Ez ayela ibilli denon ipurserbitza!</i> (Ez hadi ibili denon ipurserbitzari!). 'Pinche'.	<i>Ipurserbitzai</i>
Irautu	Ad. Egurra, kanpoan egonik erabat belzturik, sutarako ere balio ez duela geratu. <i>Egurroi iguel dek ez padok subai botatzen, irautuik zioak ta!</i> (Egur hori iguel duk ez badiok suari botatzen, iraturik zagok eta!). 'Quedar obsoleto'.	<i>Irautu</i>
Iruzki	Iz. Eguzkia.	<i>Iruzki</i>
Istikatu	Ad. Birrindu, zehatu. <i>Txitxiyuek jateko, ixtiketu ein ber zittunet!</i> (Txitxirioak jateko, istikatu egin behar ditinat!).	<i>Ixtiketu</i>
Isutsi	Ad. Eskuz erein, hazia sakabanatu. <i>Arbiye isusten yondu nok!</i> (Arbia isusten egon nauk!).	<i>Isutsi</i>
Itsesi	Iz. Idi hesia. 'Reserva o vedado boyeral'. Toponimian dago Sakanan.	<i>Itxesi</i>
Iturriama	Iz. Ura sortzen den lekua. Bertatik hartzen zen herriko ura.	<i>Itturriama</i>
Itxisatu	Ad. Tematu. 'Obstinarse, emperrarse'. <i>Erabat itxixetuik zioak Ameiketaa fatiekil!</i> (Erabat itxisaturik zagok Ameriketara joatearekin!).	<i>Itxixetu</i>
Itzego	Ad. Igo. <i>Itzo zetzezie ganboikua!</i> (Igo zaitetze ganbarara!).	<i>Itzo(o)</i>
Izerkaitz	Iz. Izerdi hotza, zorabioa.	<i>Izerkeitz</i>

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Izterpe	Iz. Hankartea.	Izterpe
Ja	Izord.Ezer: <i>Ez zionan jarik de esan!</i> (Ez zionan jarik ere esan!).	Ja
Jainkoaren gerriko, ostrileka	Iz. Ortzadarra.	Jangoikuen gerriko, ostrilleka
Jaka.-jaka	Adond. Arnasestuka. <i>Emen gaude jaka-jaka ollenda txar-roik bezela, pikue zabaldu ta atsik ezin artus!</i> (Hemen gaude jaka-jaka oilanda txar horiek bezala, pikoa zabaldu eta hatsik ezin hartuz!).	Jaka-jaka
Jarka	Iz. Ezkutuko taldetxo. 'Camarilla'.	Jarka
Jaupada	Iz. Basoan otordu garaia dela abisatzeko garrasia.	Jaupere
Jazban	Iz. Lau instrumentuz (saxofoia, akordeoia, tronpeta eta danborra) osatutako musika taldea.	Jazban
Joare hotsak aditu	Ad. per. Zurrumurrak entzun. 'Oir rumores'.	Fale otsak aittu
Jolasgura	Iz. Jolasteko gogoia.	Jolasgure
Kabitu	Ad. 1. Sartu. <i>Nee kotxien zazpi laun kaitzen die.</i> (Nire kotxean zazpi lagun kabitzen dira). 2. Mendean hartu. <i>Buruken asi ta gazteenak kaittu zen!</i> (Borrokatzen hasi eta gazteenak kabitu zuen!).	Kaittu
Kakalan	Iz. Gaizki ateratzen dena. <i>Aunbeste seyetu ta azkenien kakalan!</i> (Hainbeste saiatu eta azkenean kakalan!).	Kakalan
Kalfar	Iz. Ile luzea. 'Greña'. <i>Noiz moztu bittuk kalfarrok?</i> (Noiz moztu behar dituk kalfar horiek?).	Kalfar
Kalmatu	Ad. Zerua hodeiez estali. <i>A, ze izotza bota berdeen ez pau gaubes kalmatzen!</i> (A, zer izotza bota behar duen ez badu gaez kalmatzen!).	Kalmatu
Kaparrrosa, pupurru	Iz. Kolore gorriko lorea. 'Amapola'.	Kaparrrosa, pupurru
Kaporratz	Iz. Orratz handia.	Kaporratz
Katamamuka	Adond. Herrestan, narraz.	Katamarrauken
Katebetean	Adond. Oso larri, ezin burutuz zerbait. <i>Emen naallek lanien, katebetien, amasa artzeko betipeel!</i> (Hemen nabilek lanean, katebetean, amasa hartzeko betarik gabel!) 'Apurado'.	Katebetien

SAKANAKO IDAZKERA BATUA

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Katula	Iz. Maskara. Karatula? <i>Unenuko mamuxarruek katola yamaten ye beti.</i> (Unenuko mamuxarroek katula eramaten dute beti).	<i>Katola</i>
Kazkartu	Ad. Horditu, mozkortu. <i>Azken ontan iyendero ibiltzen dek kazkartuik!</i> (Azken honetan igandero ibiltzen duk kazkarturik!).	<i>Kazkartu</i>
Keru	Iz. Usain edo zapore berezia, janaria zertxobait erretzen denean esaterako. <i>Alubiyok keru pixkat zikobie!</i> (Babarrunok keru pixka bat zeukate!).	<i>Keru</i>
Kia	Esam. I. Zerbait sinesgaitz dela adierazteko. <i>Kia, ez tek egixe izanen!</i> (Kia, ez duk egia izanen!). 2. Ezeztapena adierazteko. <i>-Ikus dezubie alkatie? -Kia!</i> (-Ikusi duzue alkatea? -Ez!); '¡Que va!'	<i>Kia</i>
Kika	Iz. Zotina. <i>Sustue artzen beek pasatuko dakik kikel!</i> (Sustoa hartzen baduk pasatuko zaik kika!).	<i>Kike</i>
Kirail	Iz. Aldaka.	<i>Kireil</i>
Koko	Iz. Gozokia, haur hizkuntzan.	<i>Koko</i>
Kolarre	Iz. Artegi, mendiko borda. 'Aprisco para el ganado'.	<i>Kolarre</i>
Korromatu	Ad. Elurra izoztu, gogortu.	<i>Korromatu</i>
Kuanto	I. esam. Jakina, noski. <i>Kuanto, garais etor gaala!</i> (Kuantu, garaiz etorri garella!). 2. part. Balitz bezala, legez. <i>Gauzek esaten ttu kuantu biak dena dakiyen!</i> (Gauzak esaten ditu kuantu berak dena dakien!).	<i>Kuanto</i>
Kuku gelditu	Ad. per. Zuhaitza botatzerakoan, beste baten kontra zutik gelditu.	<i>Kuku geldittu</i>
Kunkun	Iz. Apoa.	<i>Kunkun</i>
Kuntza	Iz. Nahas-mahasa. <i>Semien kuartua sartu ta... aik kuntzek!</i> (Semearen gelan sartu eta... haiek kuntzak!).	<i>Kuntze</i>
Labesatar	Iz. Makila luze baten puntan doan trapua labea garbitzeko.	<i>Labesatar</i>
Lantxurde	Iz. Ihintz izoztua. 'Escarcha, centellada'.	<i>Lantxurde</i>

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Lantxuri	Izond. Lan neketsuak alboratzen dituena. Gaurko auzelaren eriko lantxuri guziek yondu ttuk! (Gaurko auzolanean herriko lantxuri guztiak egon dituk!). 'Maltrabaja'.	Lantxuri
Lanzartu	Ad. Lurra irazeki eta ontzen utzi. Fruituekin ere berdin erabiltzen da. Egun oiteko iruzkiyaki, majo ai ttuk lanzartzen guu sorueki! (Egun hauetako eguzkiarekin, bapo ari dituk lanzartzen gure soroak!). 'Añejar'.	Lanzartu
Lapartu	Ad. Euri asko egin ondoren lurra lohi antzera gelditu. Bota ttuben auriyeki, lapartuik zioak lurre! (Bota dituen euriekin, laparturik zagok lurra!).	Lapartu
Larresulso	Iz. <i>Psalliotia campestris</i> ziza.	Larresulso
Lastail	Iz. 1. Arto hostoez beteriko koltxoia. 2. Urria, hilabetearen izena.	Lasteil
Leher egiten egon	Ad. per. Oso urduri egon. Fanari lenbeilen etxia, lerreitien dazkak an denak ta! (Joan hadi lehenbailehen etxera, leher egiten dauzkak han denak eta!).	Lerreitten yon
Lehertuko bada ere!	Esam. Kosta hala kosta! Lertuko baa de Sandindeira fanen gettun iyendien! (Lehertuko bada ere Sandindegira joanen gaitun igandean!). '¡Sea como sea!'.	Lertuko baa de
Lehertzea eduki	Ad. per. Lertzie zikok! (Lehertzea zaukak!) '¡Que se fastidie!'.	Lertzie urai / irui
Lepapago	Iz. Punta moztua edo hautsia duen pagoa. San Adringo bidien guaño ikus zettezkek lepapagueki! (San Adriango bidean oraino ikus zaitezkek lepapagoak!).	Lepafago
Lepo	Iz. 1. Lepo. 2. Toponimian pasabidea.	Lepo
Lepogaineko, lepatxikiko	Iz. Lepogainean emandako kolpe txikia. 'Colleja'.	Lepageñeko, lepatxikiko
Lepotu	Ad. Bururik gabe utzi. 'Trasmochar, descabesar'.	Lepatu
Lerdetsu	Izond. Adurtsua.	Erdezu
Libratu	Ad. Erditu. Libretu zan seme eder bates! (Libratu zen seme eder batez!).	Libretu
Gorputzez libratu	Ad. per. Kaka egin.	Gorputzes libretu

SAKANAKO IDAZKERA BATUA

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Lijito	Izond. Benetakoa. <i>Ori bei dala dorrouar lijitua!</i> (Hori bai dela dorraoar lijitua!). 'Legítimo, auténtico'.	<i>Lijito</i>
Lilari	Iz. Lihoa orrazteko tresna. 'Rueca'.	<i>Lilei</i>
Limiti	Izond. Gozozalea. 'Laminero'.	<i>Limiti</i>
Lirdikatu	Ad. Lauskitu, zehatu. <i>Patatak egosi eta gjo lirdiketu eitten ttugu jateko!</i> (Patatak egosi eta gero lirdikatu egiten ditugu jateko!). 'Estrujar, machacar'.	<i>Lirdiketu</i>
Lixiba	Iz. Lixiba.	<i>Lixu, lixiba</i>
Lixibari	Iz. Lixiba egiteko harrizko ontzia.	<i>Lixuarri</i>
Lizta	Iz. Hari mehe, baina gogorra.	<i>Lizte</i>
Lokura	Iz. Hestebete zatia, sokaz banatua. <i>Bi lokure gelditzen dazkigu zuen biriketati!</i> (Bi lokura gelditzan zaizkigu zuen lokuretati!).	<i>Lokure</i>
Lumari	Iz. Hegaztien luma aldaketa.	<i>Lumei</i>
Luzagarriak eman	Ad. per. Luzamenduetan ibili. 'Dar largas'.	<i>Luzegarriyek eman</i>
Luze iritzi	Ad. per. Oso berandu delakoan egon norbaiten zain. <i>Neskatura! Nola etor etteke ain biandu? Luzitzik gaude-nan dauneko!</i> (Neskatoa! Nola etor hinteke hain berandu! Luze iritzirik geundenan dagoeneko!). 'Estar tardado'.	<i>Luzitzi</i>
M(er)endatu	Ad. Askaria egin. 'Mer(i)endatu'tik.	<i>Be(e)ndatu</i>
Maki	Izond. Herrena, maingua.	<i>Maki</i>
Makur(tu)	Izond.(ad.) Oker(tu).	<i>Makur(tu)</i>
Malamente	Adond. Alferrik. <i>Malamente zaitzie, ez dezubie ezee lortuko!</i> (Alferrik zabiltzate, ez duzue ezer lortuko!). 'En vano'.	<i>Malamente</i>
Malkor	Iz. Arkaitz.	<i>Malkor</i>
Malkorpeko	Izond. Bihotzgabea. <i>Malkorpekue yeiz, gio!</i> (Malkorpekoa haiz, gero!).	<i>Malkorpeko</i>
Mama	Iz. Ura haur hizkuntzan.	<i>Mama</i>

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Mandobelar	Iz. Behorrei hilaurra eragiten dien belarra. 'Eléboro'.	<i>Mandabelar</i>
Marmaratil	Iz. <i>Viburnum lantana</i> landarea.	<i>Marmatil</i>
Marro	Iz. Iruzurra, tranpa. Marro ein zieguk! (Iruzur egin ziguk!).	<i>Marro</i>
Martingala	Iz. Amarrua. Oren martingalak ez pattuzu aungi ikesten, geizki ibilko zaa! (Horren amarruak ez badituzu ongi ikasten, gaizki ibiliko zara!). 'Treta, artimaña'.	<i>Martingala</i>
Maskilo	Iz. Burbuila. 'Ampolla, burbuja'.	<i>Maskeilla</i>
Matagin	Iz. Letagina.	<i>Matagin</i>
Matxarda	Iz. Eskailera berezia, zutikako makila bakarrekoa. Ehizta-riek erabiltzen dituzte zuhaitzetara igotzeko.	<i>Matxarda</i>
Matxindegia	Iz. Jendetza asalaturik. 'Alboroto, algarabía'.	<i>Matxindei</i>
Matxita, atxia-matxia, mutxutxuri, atximitxi, atxitamutxita	Iz. Tximeleta txikia, argiaren inguruan dabilena da lehe-na. Gainerakoak herri ezberdinetan erabiltzen dira.	<i>Matxite, atxiya-matxiya, mutxutxui, atximitzi, atxitamutxita</i>
Mezamutil	Iz. Mezalaguna. 'Monaguillo'.	<i>Mezamutil</i>
Migura	Iz. <i>Viscum album</i> landarea.	<i>Migure</i>
Mihi	Iz. Mingaina.	<i>Mi</i>
Moko-mokoan	Adond. Ateratzeko edo gertatzeko puntuan. Moko-mokuen zikon arrontza olluorrek! (Moko-mokoan zeukan arrautza oilo horrek!). 'Asomando, apunto de caramelo'.	<i>Moko-mokuen</i>
Mulu	Iz. Lihozko haria, iztupa. 'Estopa'.	<i>Mulu</i>
Murrilo	Iz. Ateak eta leihoak ixteko kisketa.	<i>Murrilla</i>
Mustu	Ad. Estreinatua. Gaur oñetakuek mustu zittubet! (Gaur oinetakoak mustu ditiat!).	<i>Mustu</i>
Mutur egon	Ad.per. Haserretu. Mutur noo zuu aneyakil! (Mutur nago zure anaiarekin!).	<i>Mutur yon</i>
Mutur-joka	Adond. Ukabilka, muturrean kolpeak emanez ibili.	<i>Mutur-joka</i>
Muturzikin	Izond. Gaztetxoa, heldu gabea. 'Crío, mocoño'.	<i>Muturzikin</i>

SAKANAKO IDAZKERA BATUA

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Mututu	Ad. Hotzaren eraginez ezin mugitu gelditu. Eskubek mututuik dazkat otzaakil! (Eskuak mututurik dauzkat hotzarekin!). 'Aterir de frío'.	<i>Mututu</i>
Neguziza urdina, neguziza txuria	Iz. <i>Clytocibe nebularis</i> eta <i>Clytocibe geothropa</i> zizak. 'Seta pardilla' y 'seta platera'.	Neguzize urdi- ñe, neguzize txuiye
Nekabarratu	Ad. Lur jota gelditu, erabat nekaturik. 'Quedar exhausto'.	<i>Nekabarratu</i>
Ñiki-ñaka	Adond. Haserre edo eztabaidan.	<i>Ñiki-ñaka</i>
Ñoño	Iz. Logura, haur hizkuntzan.	<i>Ñoño</i>
Norako	Gald. Zertarako. Nuako ekar duk ori? (Norako ekarri duk hori?)	<i>Nuako</i>
Nozitu	Ad. Ezbeharren bat gertatu eta ondoren aurre egin. Azkenien ez tikiyau noknozittuko deen! (Azkenean ez zakiagu nork nozittuko duen!). 'Purgar, pagar las consecuencias'.	<i>Nozittu</i>
Obaldu	Ad. Apala edo gapirioa, esaterako, sabeldu, makurtu. Ganboikoko zorube aldatu berho yau, ol guziek obalduik ziek tal! (Ganbarako zorua aldatu beharko diagu, ohol guztiak obaldurik zeudek eta!).	<i>Obaldu</i>
(H)obatu	Ad. Puztu, urez ase. Auriyoiki ontto guziek obatuik deel! (Euri hauekin onddo guztiak (h)obaturik daudel!). 'Hen-chir, emparar'.	<i>Obatu</i>
Odola ur bihurtu	Ad. per. Atzera egin, beldurtu. Odola uts biyurtu zakiten eta ezin izendu nee ezee ein! (Odola ur bihurtu zitzaidan eta ezin izan nuen ezer ere egin!).	<i>Odola uts biyurtu</i>
Ohazal	Iz. Ohe gaineko estalkia. 'Sobrecama'.	<i>Guazal</i>
Oinaztur	Iz. Tximista. Nua gue i, iñezturek jotako aurpeyorreki? (Nora hoa hi, oinazturak jotako aurpegi horrekin?).	<i>Iñezture</i>
Oin-oindu	Ad. Zaldia atzeko hanken gainean jarri. Zaldiak ostikada eman ere bai.	<i>Uñuñetu</i>
Olgatu, jolastu, mutxikan aritu	Ad. Jolastu.	<i>Olgatu, olgan ibilli, jolastu, mutxikan aritu</i>
Ondalandu	Ad. Zuhaitzak landatzeko zuloak aitzurrez egin.	<i>Ondalandu</i>

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Onez onean	Esam. Modu onean. <i>Guaikos, ones onien esan dizut dena!</i> (Oraingo, onez onean esan dizut guztia!). 'A buenas, por las buenas'.	<i>Ones onien</i>
Ongabeko	Izond. Gauza onik ez duen pertsona. <i>Onbekuatzuk ttuk, beti ziiltziek ingukuek izurretzen!</i> (Ongabeko batzuk dituk, beti zabiltzak ingurukoak izorratzen!). 'Malvado, enredador'.	<i>Onbeko</i>
Ongi ustean	Adlg. Asmo onez.	<i>Aungi ustien</i>
Ongikoz	Adlg. Seguru asko, ongi izatekotan.	<i>Aungikos</i>
Orberatu	Ad. Oinak mindurik eduki. <i>Ardi geyenak orbiatuik zizko-bet!</i> 'Tener los pies doloridos, tener agujetas'.	<i>Orbiatu</i>
Orpo-orpotan	Adond. Atzetik norbait dugularik, ia gainean dagoela. <i>Lizerrako katie itzotzen asi zanien opopotan zizkoban iru karreriste.</i> (Lizarragako katea igotzen hasi zenean orpo-orpotan zitian hiru txirindulari!). 'Pisando los talones'.	<i>Opopotan</i>
Ortondo	Iz. Saski handia. <i>Ortondokadaat egur ekar yet!</i> (Ortondokada bat egur ekarri diat!).	<i>Ortondo</i>
Ostiko	Iz. Habea, zutikoa. 'Puntal'.	<i>Ostiko</i>
Ostots, ortots	Iz. Trumioia.	<i>Ostots, ortots</i>
Otserbi	Iz. Arrabioa. 'Salamandra'.	<i>Otserbi</i>
Otxarratu	Ad. Zaletu, grinatu. <i>Otxarratuik ago erabat, makin oita!</i> (Otxarraturik ago erabat, makina horietara!).	<i>Otxarratu</i>
Pagatu	Ad. Ordaindu, zorrak kitatu.	<i>Paatu</i>
Papa	Iz. Ogia, haur hizkuntzan.	<i>Papa</i>
Paratu	Ad. Kokatu, ezarri, paratu.	<i>Paatu</i>
Pattal(du)	Izond. (ad.) Osasunez gaizki dabilena, ahul(du). <i>Erabat pattaldu duk azken ontan aittuna!</i> (Erabat pattaldu duk azken honetan aitona!).	<i>Pattal(du)</i>
Paxa	Iz. Gerrickoa, normalean hurren oihaletakoa. <i>Jangoikuen paxa</i> (ortzadarra). 'Faja'.	<i>Paxa</i>

SAKANAKO IDAZKERA BATUA

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Pertzeko	Iz. Animaliendako janaria edo pertsonendako gaizki prestatutakoa. Ostatuben eman dugubienak pertzekue ematen zian! (Ostatuan eman digutenak pertzekoa ematen zian!).	<i>Pertzeko</i>
Pinpintxori	Iz. Txori mota. 'Lavandera'.	<i>Pinpintxori</i>
Pixaerreka	Iz. Pixa aldia. 'Meada'.	<i>Pixerreka</i>
Porka	Iz. Txirikorda, multzoa. Gehienbat arto eta baratxuriek erabiltzen da: artaporka, batxuioporka . 'Ristra'.	<i>Porka</i>
Porro	Iz. Praka eta ipurdiaren arteko tartea. Guaiko praka bakeruek ez zikobiek porroik! (Gaurko praka bakeroek ez zeukatek porrorik!).	<i>Porro</i>
Portalanga	Iz. Langa edo makil luzeez osatutako ate modukoa, bideak ixteko.	<i>Portalanga</i>
Porta-porta	Adond. Barra-barra, erruz, ugari. Umiek porta-porta ein da gio ajolipel! (Umeak porta-porta egin eta gero axjolarik gabel!). 'Sin tasa, a espuestas'.	<i>Porta-porta</i>
Potokeria	Iz. Litxarrerria. Potokei geyo jaten beek, gio ez tek afalduko! (Potokeria gehiago jaten baduk, gero ez duk afalduko!). 'Golosina, chuche'.	<i>Potokei</i>
Pupu	Iz. Mina, haur hizkuntzan.	<i>Pupu</i>
Pur-pur-pur	Onom. Barrearen onomatopeya. Pur-pur-pur farres yondu duk! (Pur-pur-pur barrez egon duk!).	<i>Pur-pur-pur</i>
Saizuri	Iz. Arrano mota. 'Aguilucho'.	<i>Zeinzui, zizui, zaizuri</i>
Sarri	1. Izond. Hertsia, labore bat esaterako. Aritz planta sarri elduuk basuen! (Haritz planta sarri heldu duk basoan!). 2. Adond. Askotan. Oik sarri etortzen ttuk Lakuntzeko festetaa! (Horiek sarri etortzen dituk Lakuntzako festetara!). 3. Adond. Laster, berehala, gero. Sarri etorkook nausia! (Sarri etorriko duk nagusia!).	
Sasipeko	Izond. Sasikumea.	<i>Sasipeko</i>
Sihats	Izond. Toki heze eta urtsua. Toponimian ere asko ageri da.	<i>Siyets</i>

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Soi	Iz. Irekidura edo zirrikitua. 'Grieta'.	<i>Soi</i>
Su-diru	Iz. Su-asegurua.	<i>Sudiru</i>
Suelto	Adond. Lasai, kezkarik gabe. <i>Guu etxia suelto etor zettez-ke!</i> (Gure etxera suelto etor zaitezke!).	<i>Suelto</i>
Sugemahats	Iz. <i>Arum maculatum</i> landarea.	<i>Sugemats</i>
Taranta	Iz. Ulertzeko zaila den jarrera, erokeria. <i>Oik ttuk oik tarantak dazkakenak!</i> (Horiek dituk horiek tarantak dauzkaanak!). 'Venada'.	<i>Taranta</i>
Tenteko	Iz. Zutoina, zutikoa.	<i>Tenteko</i>
Tiraferra	Iz. Enborrak herrestan eramateko ziria, ferra itxurakoa.	<i>Tieferra</i>
Trunkatu	Ad. Gurutzatu, zeharkatu. <i>Basurdiek emendi trunketu ye erreka!</i> (Basurdeek hemendik trunkatu diate erreka!).	<i>Trunketu</i>
Trunketara	Adond. Zeharka. <i>Gurdiye bidien trunketaa paatu giñuban!</i> (Gurdia bidean truketara paratu genian!).	<i>Trunketaa</i>
Ttapo	Iz. Erantzun azkar eta harrigarria, solaskidea ahoa bete hortz uzteko modukoa. <i>Ttapo botazale ikiagarriye dun zuen Frantxikol!</i> (Ttapo botazale ikaragarria dun zuen Frantxikol!).	<i>Ttapo</i>
Ttattar	1. Iz. Jaietan, lepoan jartzen den zapia. 2. Izond. Jenio txarreko pertsona, beti haserre agertzen dena.	<i>Ttattar</i>
Ttopor	Izond. Txikia, baina zabala. Biribildua. 'Pequeño y regordete'.	<i>Ttopor</i>
Ttuttupiko	Adond. Belaunak erabat makurturik, gorputza zuzen delarik. 'En cuclillas'.	<i>Ttuttuipiko</i>
Txakur-eztul	Iz. Eztul gogorra.	<i>Txakur eztul</i>
Haize-eztul	Iz. Eztul ahula.	<i>Aize eztul</i>
Txapitela	Iz. Teilatura ateratzeko leihatila. 'Claraboya'.	<i>Txapitela</i>
Txelatu	Ad. Blai eginda egon.	<i>Txelatu</i>
Txindila	Iz. Dilista.	<i>Txindille</i>

SAKANAKO IDAZKERA BATUA

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Txirimiskeria.	Iz. Garrantzia ez duen eginbeharrekoa. <i>Etxie akaatzeko txirimixkei betzuk falta zizkieguk!</i> (Etxea bukatzeko txirimiskeria batzuk falta zaizkiguk!).	<i>Txirimixkei</i>
Txirrinta, onguramin	Iz. Guraria, nahiera. 'Antojo'.	<i>Txirrinte, onguramin</i>
Txolorta	Iz. Arrautza usteldua. 'Batueco'.	<i>Txolorta</i>
Txonbolo	Iz. Orkatila.	<i>Txonbolo</i>
Txotxo	Iz. Gozokia. 'Caramelo'.	<i>Txotxo</i>
Txurrutela	Iz. Inbutua, onila.	<i>Txurrutela</i>
Uber(ratu)	Iz. (ad.) Eskuan hotzaren eraginez (eta pilotan aritzea-gatik neguan ere bai) egindako irekidura.	<i>Uber(ratu)</i>
Ubera	Iz. Katua arreske. 'Celo de la gata'.	<i>Ubera</i>
Uharka	Iz. Urtegia.	<i>Uberka</i>
Uhesi	Iz. Euriak eragindako ur baltsa, lurrak iragazten ez duelako.	<i>Ubesi</i>
Urbeldu, bikortu	Ad. Pikorkatu, aletu, garandu, bihitu.	<i>Urbeldu, bikortu, yakurri, yalkitu</i>
Ur-bihur	Iz. Ibai edo erreka ur bihurritua. 'Meandro'.	<i>Utsbiyur</i>
Urde-hiltzaille	Iz. Txerriak hiltzen dituen pertsona. 'Matalechón'.	<i>Urdilzale</i>
Urindu arte eman	Ad. Per. Jipoi handia eman.	<i>Urinddu artio eman</i>
Urri	Iz. Irail.	<i>Urri</i>
Ustai	Iz. Egurrezko lepokoa joarea zintzilikatzeke.	<i>Ustei</i>
Ustekaitzean	Adond. Kasualitatez, ustekabea. <i>Ustekaitzien agertu ber beiz, abixetu lenuo!</i> (Ustekaitzean agertu behar bahaiz, abisatu lehenagol).	<i>Ustekaitzien</i>
Zahardegitu	Ad. Janaria zahartu, pasatu, aurreko egunean egositako patatak esaterako.	<i>Zardeittu</i>
Zapar, zapardegi	Iz. Zuhaitz landareak sarri daudenean, horietako bakoitza.	<i>Zapar, zapardei</i>
Zein bere alde	Esam. Bakoitza bere aldetik.	<i>Zein be alde</i>

PROPOSAMENA	DESKRIBAPENA	BURUTZAPEN DIALEKTALA
Zeiru	Iz. Zura antzeko tresna. 'Hachuela'.	<i>Zeiru</i>
Zigorrala	Iz. Tripako min handia, hestemina. 'Retortijón de estómago'.	<i>Ziyorralla, ziyorkera</i>
Zihorri	Iz. <i>Sambucus ebulus</i> . 'Yezgo'.	<i>Ziyorri</i>
Zizur	Iz. Hiazintoa, landarea.	<i>Zizur</i>
Zolkon	Izond. Sakona.	<i>Zolkon</i>
Zotola	Iz. Zohiz egindako txabola basoan.	<i>Zotola</i>
Zotzera bota	Ad. per. Zozketatu, Leon-kastillo bota.	<i>Zotzia bota</i>

SAKANAKO IDAZKERA BATUA

- Hurrengo hitz bildumatxoak, burundera eta Sakanako gainerako hizkerak bereizten ditu:

BURUNDA	SAKANA	BURUNDA	SAKANA
orri	hosto	txahal	aratxe
barru	barne	kendu	jendu
domeka	igande	kurutz	gurutz
eroan	eraman	pago	fago
ira	iraztor	barre	far, irri ⁵
izeko	izeba	kipula	tipula
izara	maindire	bultzurrun	giltzurrun
jostai	ostots	musti	busti
kare	galtzin	jorratu	forratu
nesaki	neskato	bedar	belar
mutiki	mutiko	mutxikan ibili	jolastu, olgatu ⁶
ohe	ohatze	aulubi	marrubi
pits	apar	masurta	masusta, martutsa ⁷
ubaraxa	zapoigel	okela	haragi
gaztai	gazta	korrika	lasterka(n)
txiza	pixa	gauenara	enarasagu
igo	itzo	amandre	amina
ur	uts	aitajaun	aittona
guti	gutxi	esene	esne
eztai	ezkontza	esenatu	esnatu, itzarri ⁸
eutsi	auskin	azkura	aznahi
txipi	txiki	biki	biboro
errapatu	ohartu	txindurri	txingurri

5. Ergoien, Uharte, Irañeta

6. Ergoien eta Lakuntzatik ekialdera

7. Irañeta

8 Unanu, Lakuntza, Uharte

Jose Luis Erdozia Mauleon

Mank.

Sakanako Mankomunitatea



Aiaupenani! Beharrik! Sikiral Baratuak
Amaren baitako errespetua handia
Etxera fan da ez dezulako hots egin. Zerbait
Guaixe heldu naiz. Heldu den ostu alean amari